#75 / 2026 IRAILA

arteka



KUBA, ERRESISTENTZIA OTSOAREN AHOAN

GEDAR



Kuba ez da soilik inperialismoak eragiten duen indarkeria gupidagabe eta ankerraren beste adibide odoltsu bat. AEBk eta bere politikariek —Trumpek, Kennedyk eta tartekoek— gosea eta heriotza ezarri dizkiete kubatarrei; alabaina, Kuba menderatzeko arrazoiak uharteko azukreaz jabetzetik haratago doaz. Kuba makurrarazi nahi dute estatu sozialista bat delako, internazionalismoaren eredu izan delako eta Kubako herriak tinko eusten dielako bere ideia sozialistei, nahiz eta horren ondorioz gorriak ikusi behar izan. Blokeoa ez da soilik beste tresna inperialista bat; aitzitik, Miamiko traidoreek beren kapitala kentzeagatik sentitzen duten amorrua islatzen duen zigorra da, milioika afrikar eta asiarri uztarri kolonial eta inperialistatik askatzen laguntzeagatik ezarritako zigorra. Arteka hau horren guztiaren azaleko errepasoa da.

Edukia

06 **Martírekin hasi eta PCCraino: Kubako Alderdi Komunistaren historia**
Aritz Rodríguez Galán

24 **Kuba, estatu auzia: Estatu Batuen politikaren azterketa, Monroe doktrinatik hasi eta egungo ofentsibara arte**
Garai Zabalza

42 **Kubako herriaren ardura internazionalista heroikoa**
Lucia Manara

06






24



42







Martírekin hasi eta PCCraino: **Kubako Alderdi Komunistaren historia**

Testua — **Aritz Rodríguez Galán**



1965eko urriaren 3a

HIRU AURREKARIKO PROZESU HISTORIKOA

1965eko urriaren 3an, Habanako Chaplin antzokian, Fidel Castrok Kubako Alderdi Komunista (*Partido Comunista de Cuba*, PCC) sortu berriaren Komite Zentrala aurkeztu zuen jendaurrean, eta, ekitaldi horrekin, 1959ko urtarrilaren 1eko Kubako Iraultzaren garaipenarekin hasitako bateratze-prozesua burutu zen. Prozesu horren bidez, erakunde politiko bakarrean batu ziren Fulgencio Batistaren diktadurari aurre egin zioten indar nagusiak; hain zuzen ere, uztailaren 26ko mugimendua (*Movimiento 26 de Julio*), alderdi sozialista popularra (*Partido Socialista Popular*) eta martxoaren 13ko direktorio iraultzailea (*Directorio Revolucionario 13 de Marzo*).

Aitzitik, PCCren jatorria ezin dezakegu azken prozesu horretara mugatu; izan ere, alderdiak hasiera-hasieratik bere buruarekiko izandako ulerkera historikoari muzin egitea litzateke hori. Hain zuzen ere PCCk hamarkadetako jarraitutasun politikoaren oinordeko gisa aldarrikatu izan du bere burua, eta ez soilik 1959ko Iraultzatik jaiotako erakunde gisa. Alderdi iraultzaile hori funtsezko hiru esperientziatan sustraitzen da: batetik, José Martík kolonialismoaren aurka borrokatzeko sortutako *Partido Revolucionario Cubano* Kubako alderdi iraultzailean; bigarrenik, Kubako lehen alderdi komunistan, Urriko Iraultzaren babesean sortua; eta, hirugarrenik, Kubako Iraultzan bertan. Genealogia horrek, hain zuzen, Kubako etapa historikoen jarraitutasun politikoa erakusten du, eta ez erakundeen segida soila.


KUBAKO ALDERDI IRAULTZAILEA

Kubako alderdi iraultzailea (*Partido Revolucionario Cubano*, PRC) Jose Martík sortu zuen 1892an, Kubaren independentziaren aldeko gerra berria antolatzeko asmoz. Hala ere, ez zen altxamendu armatua prestatzera mugatzen: alderdiaren oinarriek jaso bezala, PRCk mugimenduari norabide politiko bateratua eman, eta etorkizuneko errepublikaren oinarriak ezarri nahi zituen. Errepublikak erregimen kolonialetik oinordetzan hartutako menderatze-egiturak ez errepikatzea zuen helburu, eta, beraz, PRC, hauteskunde lehiarako alderdi gisa baino gehiago, askapen nazionaleko prozesua zuzentzeko sortu zen.

Kubako Alderdi Komunistak hamarkadetako jarraikortasun politikoaren oinordeko gisa aldarrikatu izan du bere burua, eta ez soilik 1959ko Iraultzatik jaiotako erakunde gisa

Martíren kolaboratzaile estuenetako bat Carlos Baliño izan zen. Tabakogilea lanbidez eta militante beteranoa, Baliñok PCRren jardunari eutsi zioten kluben antolaketan parte hartu zuen, batez ere Estatu Batuetan finkatutako etorkin komunitateen artean. PRCren barruan, Baliño antolatzaile eta propagandista izan zen, Martíren proiektuarekin sakonki konprometitua, eta, hamarkada batzuk geroago, haren ibilbideak esanahi historiko berezia hartu zuen.

1895eko maiatzean hil zen Martí, Dos Ríosen, baina PCR Kubako alderdi iraultzailea ez zen berehalakoan desagertu: independentzia-gerraren koordinazio politikoan funtsezko papera betetzen jarraitu zuen, Espainiaren domeinu kolonialak porrot egin arte. Espainiak eta Estatu Batuek 1898ko Parisko Ituna sinatu zutenean, PRC desagertu egin zen. Hala ere, Kubak Estatu Batuekiko mendekotasun politiko eta ekonomiko



Jose Marti Kubako alderdi iraultzailea





Juan Antonio Mella, Fulgencio Batista eta Carlos Baliño



Internazional Komunistaren ardura nagusia ez zen soilik Latinoamerikan bere eragina zabaltzea, baizik eta langile mugimenduan esku har zezaketen alderdi komunista egonkorrak bultzatzea

izugarria izaten jarraitu zuen, eta, bitartean, industriaren garapenak eta langile mugimenduaren hazkundeak gatazka-egoera berriak ireki zituzten. Azken faktore horiek markatu zuten errepublikaren aro berria.

Testuinguru horretan, Carlos Baliñoren ibilbideak dimentsio berezia hartu zuen. PRC desagertu ondoren jarduera politikotik aldendu beharrean, pixkanaka bere militantzia langile mugimendura eta ideia sozialistetara bideratu zuen. Hala, Jose Martírekin batera PCR Kubako alderdi iraultzailearen sorreran parte hartu eta hiru hamarkada geroago, eginkizun erabakigarria izan zuen ostera ere, oraingoan Julio Antonio Mellarekin batera: Kubako lehen alderdi komunista sortzea.

KUBAKO LEHEN ALDERDI KOMUNISTA

1902ko Errepublikaren lehen urteetan, uhartearen panorama politikoa eraldatu zuten hainbat prozesu indartu ziren Kuban, eta ibai bakarrean baturiko errekastoak bailiran bateratu. Langile mugimenduaren hazkundeak, sindikalismoaren hedapenak eta erakunde sozialisten agerpenak Urriko Iraultzaren nazioarteko inpaktuarekin egin zuten bat –boltxebikeen garaipen hura erreferente bihurtu zen Latinoamerikako sektore iraultzaile askorentzat–. Hala, Urriko Iraultzaren influentziak eremu emankorra aurkitu zuen Kubako langile klase jaioberriaren artean, antolakuntza sindikalaren eta ideia sozialisten hedapenaren tradizioa sortzen ari zen momentu horretan.

Aldi berean, Habanako Unibertsitatea herrialdeko berrikuntza politiko eta intelektualaren gune nagusietako bat bihurtu zen. 1922an, Julio Antonio Mellak unibertsitateko ikasleen federazioa (*Federación Estudiantil Universitaria*) sortzen lagundu eta, urtebete geroago, José Martí Herri Unibertsitatea sustatu zuen. Azken hori, heziketarako ez ezik, ikasle mugimenduaren eta langile erakundeen arteko topagunea ere izan zen, eta militante iraultzaileen belaunaldi berria politikoki heztea bultzatu zuen.

Bitartean, Internazional Komunistak gero eta arreta handiagoz jarraitzen zuen Kubako langile mugimenduaren bilakaera. 1920ko hamarkadaren hasieratik, Kominterneko Idazkaritza Latinoamerikarrak uhartearen egoera politikoari buruzko txostenak jasotzen zituen, eta harremanak zituen Habanan eta beste hiri batzuetan sortzen hasi ziren elkarte komunistekin. Internazional Komunistaren ardura nagusia ez zen soilik Latinoamerikan bere eragina zabaltzea, baizik eta langile mugimenduan esku har zezaketen alderdi komunista egonkorrak bultzatzea. Kubako kasuan, osagai *tradeunionista* sendoa erakusten zuen langile mugimenduak, baina koadro eta nekazariekiko lotura eskasekin. Kontserbatu den korrespondentziak ondo baino hobeto islatzen du Kubako egoera ezagutzeko zer-nolako interesa zegoen; nolakoak ziren, besteak beste, talde horien osaera soziala, langile erakundeekiko loturak eta zer nolako gaitasuna zuten Hirugarren Internazionaleko atal propio bat eratzeko.

Prozesu nazional eta internazional hori 1925ean burutu zen, Habanan egindako Elkarte Komunisten Kongresu Nazionalean. Ordezkariek Kubako lehen alderdi komunista eratzea erabaki zuten, uharteko talde marxistak bateratuta. Ordezkarien izendapen harrerako burua Carlos Baliño izan zen, bere ibilbide politiko luzearen aintzatespen gisa; Julio Antonio Mella, berriz, erakunde berriaren buruzagitzako kide izendatu zuten. Kongresuak José Miguel Pérez aukeratu zuen lehen idazkari nagusi eta, azkenik, alderdia Internazional Komunistan sartzeko eskaera formala egitea onartu zuen.

Alderdi berriaren sorrera-testuingurua honako hau zen: batetik, Gerardo Machadoren gobernuak gero eta errepresio bortitzagoa zerabilen; bestetik, antolakundea oraindik ere kopuruz urria zen, hirigune nagusietatik kanpo gutxi ezarria eta klandestinitatera behartua. Ondorioz, erakundea sendotzeko behar larria zegoen, baina, alderdiak horretan ziharduen bitartean, buruzagi nagusietako batzuk jazarriak izan ziren, hala nola Julio Antonio Mella eta José Miguel Pérez.

Era berean, Kominternean sartzeak hartu-eman politiko bizia zabaldu zuen nazioarteko mugimendu komunistarekin. Urte haietako korrespondentziak erakusten duenez, ez zituzten Internazionalaren orientazio orokorrak modu mekanikoan aplikatzen, baizik eta Kubako errealitatearen arazo espezifikoetara egokitzen zituzten. Arazo horietako bat nekazarien artean alderdiak zuen zabalpen eskasa zen: afera bereziki garrantzitsua zen, kontuan hartuz gero herrialdearen konposizio ekonomikoa eta landa-eremuko gatazkak areagotzen ari zirela. Hortaz, lan politikoa landa-eremura hedatu eta langileen eta nekazarien arteko aliantza eraiki beharra zegoen: horra hor momentuko eztabaidaren ardatz nagusietako bat.

Kontua ez zen soilik alderdi komunistaren eta nazionalistaren arteko akordio taktikoak ezartzea, baizik eta gero eta zabalagoa zen mugimendu antimachadistan esku hartzea, independentzia politikoari uko egin gabe

Machadoren erregimenaren aurkako mobilizazioek gorantz egin zuten, eta praktika politikora zabaldu ziren arestian aipaturiko eztabaidok. Alde batetik, alderdi nazionalistarekiko (*Partido Nacionalista*) harremana eztabaidagai nagusietako bat zen; izan ere, nekazari asko eta asko barnebiltzen zituen. Kontua ez zen soilik harekin akordio taktikoak ezartzea, baizik eta gero eta zabalagoa zen mugimendu antimachadistan esku hartzea, independentzia politikoari uko egin gabe. Izan ere, nazionalismoaren zati batek irtenbidea Estatu Batuen babesaren eskutik ikusten zuen. Beste aldetik, baina, Kubako langile konfederazio nazionala (*Confederación Nacional Obrera de Cuba*) sendotzeak, greben bultzadak eta hainbat lan-gatazkatan komunisten presentzia gero eta handiagoak alderdiaren eragina handitu zuten.

1930eko greba orokorraren testuinguruan irekitako krisiak proban jarri zuen estrategia hori. Alderdi Komunistak eginkizun aktiboa izan zuen langileen mobilizazioetan eta 1933ko lanuzteetan, eta erregimena botatzea lortu zuten. Hala ere, Machado erori izanak ez zituen itxi urte haietan irekitako eztabaidak. Aitzitik, koiuntura berriak erronka ugari ekarri zituen: aliantza-politika aztertzea, alderdiaren papera definitzea irekiera politiko handiagoko testuinguruan, eta estrategia testuinguru nazional eta nazioartekora egokitzea, etengabe aldatzen ari baitzen.

ALDERDI KOMUNISTATIK ALDERDI SOZIALISTA POPULARRERA

1930eko hamarkadan, Kubako komunismoa aro berri batean sartu zen. Gerardo Machado erori izanak ez zion prozesu iraultzaileari biderik eman, sektore askok espero bezala. Kontrara, erregimenaren amaiera ezegonkortasun politikoko aldi luze baten hasiera izan zen: Indar Armatuek, Fulgencio Batistaren lidergo gero eta handiagoaren pean, pisu erabakigarria hartu zuten bizitza publikoan. Paraleloki, faxismoak Europan izan zuen gorakadak Internazional Komunistaren taktika eta estrategia aldatzea ekarri zuen. Kominternak, 1935eko VII. Kongresuan, fronte popularren politika jarri zuen erdigunean, faxismoaren eta gerraren aurka indar demokratikoekin aliantza zabalak eraikitzean oinarritzen zena.

Kuban, Alderdi Komunistak pixkanaka-pixkanaka klandestinitatea utzi eta bere presentzia zabaldu zuen mugimendu sindikalean. Bertan, paper nabarmena bete zuen langile mugimendua berrantolatzen eta, 1939an, Kubako langileen konfederazioa (*Confederación de Trabajadores de Cuba*) eratzen. Hala, testuinguru politiko berri bat ireki zen, 1940ko Konstituzioan gauzatua: Alderdi Komunista bizitza legalean eta parlamentarioan sartzeko aukera zabaldu zen, eta, beraz, egoera izugarri aldatu zen aurreko hamarkadan izandakoaren aldean.

Prozesu hori erakundearen bilakaeran islatu zen: 1939an, alderdiak izen berria hartu zuen, *Unión Revolucionaria Comunista*, Internazionalak bultzatutako aliantza-politikarekin bat etorriz. Bost urte geroago, 1944an, *Partido Socialista Popular* (PSP) izena hartu zuen, eta izen horrekin garatu zuen bere jarduera Errepublikak iraun zuen aldian.

Berrogeiko hamarkadan, PSPk eragin nabarmena izan zuen mugimendu sindikalean, eta ordezkaritza instituzionala mantendu zuen. Garai horretan, Batistaren gobernuekin unean-unean kolaboratzera iritsi zen Batista presidente izan zen lehen etapan (1940-1944), eta, esan gabe doa, estrategia hark eztabaida handiak piztu eta kritika gogorrak jaso zituen, batez ere, PSPk gerrillarien borrokarako aukera zalantzan jarri baitzuen. Hala ere, 1952an estatu kolpea eman zuen Batistak, eta horrekin amaiera eman zion hamarkada bat baino gehiago iraun zuen testuinguru politikoari. PSP alderdi sozialista popularraren jarduerak legezko izateari utzi zion eta 1959ko Iraultzarekin bukatuko zen konfrontazio ziklo berria ireki zen.


El Caribe

SEGUNDA EDICION DEL DIA

BATISTA DA GOLPE HOY EN LA HABANA

Prío Socarrás Huye

LA HABANA, 10 de marzo (AP).—El general Fulgencio Batista, horas después de asumir el mando como "jefe de la revolución" que derrocó al dictador Carlos Prío Socarrás, anunció haber formado el siguiente gabinete:

Ministro de relaciones exteriores, Ernesto Sonteveis; de Educación, Andrés Rivero Agüero; de Obras Públicas, José Mendigutía; de Salubridad, Enrique Saladrigas; de Agricultura, Oscar de la Torre; de Comercio, Pablo Carrera Justiz; de Justicia, Miguel A. Céspedes Casado; de lo Interior, Ramón Hermida; de Defensa, Nicolás Pérez Hermidas; del Tesoro, Justo García Fariñas; del Trabajo, Marino López Blanco; de la Presidencia, Andrés Domingo Morales; de Publicidad y Propaganda (creación), Ernesto de la Fé.

Además anunció el nombramiento de María Gómez Carbonell, como ministra sin cartera.



1952ko estatu kolpea

1959KO IRAULTZA ETA ANTOLAKUNDE IRAULTZAILEAK BATERATZEA


1959ko urtarrilaren 1eko iraultzak garaipena lortu bazuen, izan zen ibilbide eta estrategia politiko desberdinak zituzten erakundeek borrokarako bat egin zutelako Batistaren diktaduraren aurka.

1952ko estatu kolpearen ondorengo lehen urteetan, zeregin nagusia langile mugimendua berrantolatzea eta diktaduraren aurkako herri mobilizazio zabala eraikitzea zela pentsatzen jarraitu zuen PSP alderdi sozialista popularrak. Ikuspegi hori aurreko hamarkadetan izandako esperientzia politikoaren eta Kubako egoeraren irakurketaren ondorio zen, matxinada armatu orokor baterako baldintzak oraindik ere eskasak zirela iruditzen baitzitzaien. Hala ere, balorazio hori aldatzen hasi zen prozesuak aurrera egin eta armada errebeldea bere posizio politiko eta militarra sendotzen joan ahala.

Bira hori pixkana-pixkana izan zen, eta ez gatazkarik gabe. 1955eko abenduan, langileen eskaeren defentsarako batzordeak 400.000 azukre langilek greba orokorra egitea lortu zuen. Greba horrek soldata-aldarrikapenen zati bat lortu, eta PSPk eremu armatutik kanpo zuen mobilizazio-gaitasuna agerian jarri zuen. 1956an, alderdiak "abuztuko ildoa" aldarrikatu zuen: ildo horrek hauteskunde orokorren aldarrikapena agortutzat jotzen zuen eta, lehen aldiz, modu irekian proposatu zuen herriaren matxinada Batista boteretik kentzeko bide gisa. Hala ere, *Movimiento 26 de Julio* mugimenduarekiko mesfidantza oraindik ez zen desagertu: Che Guevarak gerora idatzi zuen bezala, PSPri botera hartzeko aukerari buruzko ikuspegia falta zitzaion. Lankidetza behin betiko finkatu zen 1958an, PSPko militanteak Che Guevara eta Camilo Cienfuegosen zutabeetan sartu zirenean, eta langileen fronte nazional batuaren (*Frente Obrero Nacional Unido*) sorrera bultzatu zen diktadura erortzean etorriko zen greba orokorra koordinatzeko.

PSPrekin batera, beste bi erakunde iraultzaile handi zeuden, *Movimiento 26 de Julio* eta *Directorio Revolucionario 13 de Marzo* izenekoak. Lehenak, Fidel Castro buru, Sierra Maestrako gerrilla-borroka antolatu zuen hirietako ezkutuko sare zabal batekin, eta bigarrenak estrategia insurrekzional propioa garatu zuen.

1952an estatu kolpea eman zuen Batistak, eta horrekin amaiera eman zion hamarkada bat baino gehiago iraun zuen testuinguru politikoari. PSP alderdi sozialista popularraren jarduerak legezko izateari utzi zion eta 1959ko Iraultzarekin bukatuko zen konfrontazio ziklo berria ireki zen



Fidel Castro, *Movimiento 26 de Julio* mugimenduko ordezkaria

Baina garaipenak ez zituen erakunde horiek berehala bateratu eta desagerrarazi. Iraultzaren lehen urteetan, *Movimiento 26 de Julio* mugimenduak, *Partido Socialista Popular* alderdiak eta *Directorio Revolucionario* antolakundeak egitura bereiziak izaten jarraitu zuten. Hala eta guztiz ere, botere berria sendotzeko zatiketa gainditu eta prozesua zuzentzeko gai izango zen erakunde bakar bat eraiki behar zen.

ORI ERAKUNDE IRAULTZAILE INTEGARTUETATIK KUBAKO ALDERDI KOMUNISTARA

Lehen urratsa 1961ean erakunde iraultzaile integratuak (*Organizaciones Revolucionarias Integradas*, ORI) sortzea izan zen; erakunde horien helburua *Movimiento 26 de Julio*, *Partido Socialista Popular* eta *Directorio Revolucionario 13 de Marzo* politikoki koordinatzea zen. Horien sorrera bat etorri zen iraultzaren une erabakigarri batekin: haren izaera sozialistaren aldarrikapena, Playa Giróneko garaipena eta Estatu Batuekiko gatazka larriagotzea. Horrek guztiak indartu egin zuen zuzendaritza politiko bateratuaren beharra.

Integrazioa, ordea, ez zen zailtasunik gabe gauzatu. Militanteen jatorriari lotutako hautaketa-irizpideek eta ORIen funtzionamenduan atzemandako praktika sektarioek prozesua zuzentzeko beharra azaleratu zuten. Horren ondorioz sortu zen, 1962an, Kubako iraultza sozialistaren alderdi batua (*Partido Unido de la Revolución Socialista de Cuba*, PURSC), bateratzearen etapa goren gisa sortua eta bere koadroen ibilbide eta meritu iraultzaileetan oinarritutako erakunde kohesionatu bat sendotzera bideratua.

Hiru urte geroago, 1965eko urriaren 3an, PURSC alderdiak behin betiko hartu zuen *Partido Comunista de Cuba* (Kubako Alderdi Komunista) izena alderdiaren lehen Komite Zentralaren aurkezpen ekitaldian. Organo horren osaeraren irakurketa publikoak, kide bakoitzaren ibilbide iraultzailea azaltzearekin batera, adierazi nahi zuen zuzendaritza berria ez zela erakunde zaharren arteko banaketa soila, baizik eta hamarkadetako borrokan pilatutako esperientziaren ondorio.

Iraultzak garaitu ondoren, botere berria sendotzeko zatiketa gainditu eta prozesua zuzentzeko gai izango zen erakunde bakar bat eraiki behar zen



Movimiento 26 de Julio


KUBAKO ALDERDI KOMUNISTAREN I. KONGRESUA

1975ean, Kubako Alderdi Komunista eratu eta hamar urtera, alderdiaren I. Kongresua egin zen Habanan. Aurreko garaia antolaketa politikoa bateratzeak markatu bazuen, lehen kongresu hark beste fase bat inauguratu zuen: Iraultza sendotzeko eta alderdia zuzendaritza-organo gisa definitzeko garaia. Horrela, hilabete gutxi batzuk geroago honela zioen 1976ko Konstituzioak: PCC "gizartearen eta Estatuaren indar politikoko gidari gorena" izango zen.

Agertoki berri honetan, eta gidaritza-rola bere eginda, sozialismoaren eraikuntzak aurrez aurre zituen arazoei buruz eztabaidatu zuten nagusiki alderdiaren barruan. I. Kongresuaren Txosten Nagusiak Iraultzaren lehen urteen balantze kritikoa egiten zuen, eta eztabaidaren erdigunean jarri zituen, besteak beste, plangintza ekonomikoa, garapen industriala, nekazaritza, lanaren antolaketa edo Estatuko aparatuaren funtzionamendua. Horrekin batera, Kongresuak Kubako Alderdi Komunistaren plataforma programatikoa onartu zuen, bai eta antolamendu politikoari, hezkuntzari, kulturari, zientziari, defentsari eta nazioarteko harremanei buruzko hainbat ebazpen ere; horrela, zehaztuta geratu zen alderdiaren jarduera-esparrua hurrengo etaparako.

Gainera, urte gutxi batzuk lehenago Elkarren Laguntza Ekonomikorako Kontseiluan (ELEK) sartu zen Kuba. Integrazio horrek hainbat kontu erraztu zituen, hala nola finantzaketa lortzea, lankidetza zientifiko-teknikoa, merkatu egonkorrak eta lanaren nazioarteko banaketa sozialistan oinarritutako plangintza. Horrela, alderdiaren buruzagitza sendotzeaz gain, I. Kongresuak gizartearen eta Estatuaren berehalako erronka politiko eta ekonomikoei heldu zien.

II. Kongresuak (1980) ekonomiaren zuzendaritza eta plangintza sistema aplikatzeko lehen bosturtekoaren balantzea egin zuen, eta 1985era arteko gidalerro ekonomikoak onartu zituen, txostenak berak argi eta garbi aitortzen zuen narriadura ekonomikoaren testuinguruan. Sei urte geroago, III. Kongresuak, 1986an, inflexio-puntu bat markatu zuen: "akatsen zuzenketa eta joera negatiboak" izenburupean, alderdiak aurreko bosturtekoaren gaineko autokritika egin zuen, hala nola ekoizpenean, baliabideak aurreztean eta lan-diziplinan hartutako erabakiei zegokienez.



Kubako Alderdi Komunistaren I. Kongresua


PCC Kubako Alderdi Komunistaren I. Kongresuan definitutako egitekoa honela jaso zen hilabete gutxi batzuk geroago 1976ko Konstituzioan: PCC "gizartearen eta Estatuaren indar politikoko gidari gorena" izango zen

IV. KONGRESUA ETA GARAI BEREZIAREN HASIERA

Kubako Alderdi Komunistaren IV. Kongresua 1991n egin zen. PCCren sorreratik izandako erronka politiko handienetako bati egin behar izan zion aurre: Iraultza egonkortu zen garaian ezarritako ereduak azkar desagertzen ari zen nazioarteko testuinguru bat zuen oinarri. Izan ere, sozialisten joko zelaia gainbeheran zihoan nazioartean, eta, ondorioz, ELEK ere desegin egin zen. Bi gertakari horiek zailtasun politiko eta ekonomiko handiak ekarri zizkioten uharteari.

Marko sozialista hausteak ondorio latzak izan zituen, besteak beste, kanpo merkataritzak bortizki behera egitea, energia-hornidura, finantzaketa eta lankidetza teknikoa galtzea, edota jarduera ekonomikoak izugarri murriztea. Gainera, azpimarratzekoa da Estatu Batuek betetako rola, uhartearen aurkako blokeoa gogortu baitzuten hura ezegonkortzeko, Torricelli Legea edo Helms-Burton Legea onartzearen bidez. Testuinguru horretan hasi zen "garai berezia" deiturikoa.

Errealitate berri horren aurrean, IV. Kongresuak nazioarteko isolamendu egoeran proiektu sozialistak zituen jarraipen aukerez eztabaidatu zuen, alderdiaren buruzagitza mantendu, eta egokitzapen ekonomikoko prozesu bat irekita. Hurrengo urteetan onartutako erreformak salbuespenezko egoera bati aurre egiteko mekanismo



Kubako Alderdi Komunistaren I. Kongresua

Estatu Batuek eragin handia izan zuten Kubako egoera gaiztotzean, uhartearen aurkako blokeoa gogortu baitzuten hura ezegonkortzeko, Torricelli Legea edo Helms-Burton Legea onartzearen bidez



Kubako Alderdi Komunistaren I. Kongresua

gisa aurkeztu ziren, baina 1976ko Konstituzioaz geroztik ezarritako oinarri politikoak aldatu gabe. Harrezkero, PCCren kongresu gehienek erronka hori bera izan dute ardatz: nola egokitu Kubako eredu ekonomikoa nazioarteko testuinguruaren eraldaketetara, eta, paraleloki, alderdiaren gidaritza zaindu.

Era berean, garai horretan uharteak nazioarteko erreferentzialtasun politikoa galdu zuen, eta, ondorioz, PCCk eta Kubak munduaren aurrean bete beharreko papera ere eztabaidagai izan zen. Hala, Kubako prozesuari erantzukizun handiagoa aitortu zioten: uhartearen borroka ezin zen bere behar propioetara mugatu; aitzitik, agertoki berri horretan bereziki, nazioarteko erreferente bilakatu behar zuen.

KUBAKO ALDERDI KOMUNISTA GAUR EGUN

Sozialisten joko zelaia erori izanak ez zuen aldatu Kubako Alderdi Komunistak Kubako sistema politikoaren barruan zuen posizioa, baina bai alderdiak jardun behar zuen testuingurua, sakonki, gainera. 1976ko Konstituzioa onartu zenetik, PCCk bere burua "gizartearen eta Estatuaren indar politikoko gidari goren" gisa definitzen jarraitzen du. Printzipio hori mantendu egin zuen 2019ko Konstituzioaren erreformak, eta politikoki norabidetzen du prozesu osoa.

Lan hori masa-erakundeen sare zabal baten bidez egituratzen da; besteak beste, *Central de Trabajadores de Cuba*, *Comités de Defensa de la Revolución*, *Federación de Mujeres Cubanas*, *Federación Estudiantil Universitaria* edo *Unión de Jóvenes Comunistas*. Antolakunde horien bitartez, alderdiak herrialdeko bizitza politiko, sozial eta produktiboaren eremu nagusietan duen presentziari eusten dio, koadro berriak prestatzen ditu eta biztanleriaren hainbat sektoreren partaidetza antolatua bideratzen du.

Azken hamarkada eta erdian, jarraipen instituzional horri zuzendaritzaren belaunaldi erreleboa gehitu zaio. 2011n, Raul Castro Lehen Idazkaritzako buru zela, VI. Kongresuak politika ekonomiko eta sozialaren ildoak onartu zituen, zeinak "Kubako eredu ekonomikoa eguneratzea" ireki baitzuten. VII. Kongresuak, 2016an, prozesu horri jarraipena eman zion, Kubako eredu ekonomiko eta sozialaren kontzeptualizazioa eta 2030era arteko garapen plan nazional bat onartuta. 2021ean, VIII. Kongresuan –ofizialki "jarraipen historikoaren kongresua" deitua–, Raul Castrok Lehen Idazkaritza utzi zuen. Erreleboa

Bloke sozialistaren erorketatik bizirik atera zen estatu bakanetakoa izan zen; beraz, Kuba –eta, ondorioz, PCC– erreferente bilakatu zen alderdi komunista eta mugimendu antiinperialista askorentzat

Miguel Diaz-Canelek hartu zuen, eta, horrela, 1959ko Iraultzaren buruzagi historikoen zikloa itxi zen.

Nazioarteko posizioari zegokionez, joko-zelai sozialista erortzearen ondorioz, PCCk rol protagonista hartu behar izan zuen halabeharrez, Gerra Hotzean izan zuena baino areago. Izan ere, bloke sozialistaren erorketatik bizirik atera zen estatu bakanetakoa izan zen; beraz, Kuba –eta, ondorioz, PCC– erreferente bilakatu zen alderdi komunista eta mugimendu antiinperialista askorentzat. Orduz geroztik, Iraultzaren defentsarekin batera, agente aktibo izaten jarraitzen du Kubak: nazioarteko jarduera bizia dauka, baita kontinente desberdinetako erakunde politiko eta sozialekiko aldebiko loturak ere. Gainera, hainbat topaketa, ekitaldi eta espaziotan parte hartu du, hala nola Alderdi Komunisten eta Langile Alderdien Nazioarteko Topaketetan, São Pauloko Foroan edo Gazteen eta Ikasleen XIV. Mundu Jaialdian.

Kubako Alderdi Komunistaren historia ez zen 1965eko urriaren 3an hasi, ezta orduan amaitu ere. Hirurogei urte geroago, hastapeneko hamarkadetan izan zituen oso bestelako erronkei egin behar die aurre: eredu ekonomiko gaurkotuari, AEBren blokeo gogorrari, edota nazioarteko agertoki berriari. Zailtasunak zailtasun, baina, sorreratik hartutako erantzukizun berari eusten jarraitzen du: Kubako gizartearen eta Estatuaren indar politiko gidaria izatea.



KUBA, ESTATU AUZIA

Estatu Batuen politikaren azterketa, Monroe doktrinatik hasi eta egungo ofentsibara arte

Testua — **Garai Zabalza**
Irudia — **Lua Carteron**



Estatu Batuetako armadaren USS Nimitz hegazkin ontzia Kubako kostaldearen aurrean dago zain, setio moderno bortitz baten agertoki bihurtu duten Karibeko uharte txikia zelatzen ari den altzairuzko erraldoi bat bailitzan. Iparramerikarren grin kolonizatzailea ez da berria, baina argi dago Trump Administrazioaren itzulerarekin Estatu Batuen eta aipatu uhartearen arteko gatazka historikoa gogortu egin dela.

Artikulu honetan, gatazkaren oinarriak ulertzeko funtsezko elementuak azaltzen saiatuko naiz, bai eta Estatu Batuetako gobernua Kubaren aurka gauzatzen ari den ofentsiba berriaren koiuntura modu egokian aztertzeko behar diren gakoak aurkezten ere. Analisi hori gauzatzeko, funtsezko hiru auzi garatuko ditut: bi herrialdeen arteko aldebiko harremanen garapen historikoa; Miamiko *lobby* kubatarraren sorrera eta sofistifikazioa; eta, azkenik, ofentsiba yanki berriaren eta Marco Rubiok ofentsiba horretan jokatzen duen paperaren deskribapena.

I. ALDEBIKO HARREMANAREN BILAKAERA ETA DOMINAZIO ESTRATEGIKOAREN FASEAK

Estatu Batuen eta Kubaren arteko harremana ez da Gerra Hotzean jaiotako disputa koiuntural hutsa; aitzitik, asimetria geopolitikoak, gertutasun territorialak eta Washingtonek hemisferioa kontrolatzeko duen anbizioak eragindako prozesu luze baten emaitza da. XIX. mendetik aurrera, Karibeko uharteak zentralitate osoa izan du Estatu Batuen segurtasun nazionaleko doktrina eratzerako garaian, eta Estau Batuek laborategi moduan baliatu dute Karibeko arroan euren proiekzio inperialista gauzatzeko.

Azpimarratzekoa da Kubak Estatu Batuen kanpo politikan izan duen zentralitatea aldakorra izan dela eta ezin duela soilik haren gertutasun geografikoak azaldu. Izan ere, Estatu Batuetako kapitalismoaren behar materialak aldatzen joan ahala eraldatu da uharteari esleitutako funtzioa ere: lehendabizi, lurraldearen finkapena eta kapitalismo esklabistaren hedapena; ondoren, kapital industrial eta finantzarioaren kanpo proiekzioa; beranduago, azpiratutako eremu hemisferiko baten antolaketa; eta, azkenik, haustura iraultzaile bat geldiaraztea eta potentzia lehiakideen aurrean Estatu Batuen nagusitasuna defendatzea.

XIX. mendetik aurrera, Karibeko uharteak zentralitate osoa izan du Estatu Batuen segurtasun nazionaleko doktrina eratzerako garaian, eta Estau Batuek laborategi moduan baliatu dute Karibeko arroan euren proiekzio inperialista gauzatzeko

Artikulu honen helburua ez da harreman horretan izandako gertakari esanguratsu guztien analisi historiografiko zehatza egitea, baizik eta lotura asimetriko hori ezaugarritu duten dominazio formak erakusten dizkiguten faseak zehaztea. Hortaz, jarraian aldi historiko horietako bakoitza definitzen duten ezaugarriak eta gertakari historikoak azalduko ditut.

Lurralde hedapena eta aldebakarreko tutoretza juridikoa (1848-1934)


XIX. mendearen zatirik handienean, Estatu Batuek Kubarekiko zuten kanpo politikaren gidari nagusiak “fruta onduaren doktrina” (*ripe fruit theory*) eta “ageriko patuaren doktrina” (*manifest destiny*) izan dira. Logika horren arabera, Espainiako Koroatik bereizi ondoren, uhartea ezinbestean erori behar zen Estatu Batuen grabitate eremu politikora. Premisa horrek lurraldea erosketa formal bidez eskuratzeko ahalegin finantzario sistematikoak eragin zituen, horien artean aipagarrienak honako hauek izanik: 1848an James Polk presidenteak 100 milioi dolar eskaini zituen eta, 1897an, William McKinley presidenteak 300 milioi.

“Fruta onduaren doktrina” izeneko horrek harreman estua du Monroe doktrinarekin; John Quincy estatu idazkariak asmatu zituen biak ala biak 1923an. Lehenaren arabera, Estatu Batuek pazientzia estrategikoa izan behar zuten, uhartea gainbeheran zihoan Espainiatik askatu eta, grabitate geopolitikoak eraginda, Washingtonen kontrolpean erori arte. Bigarrenak defentsa-ezkutu moduan jardungo zuen, argudiatuz Europak kontinente amerikarrean egindako ezein kolonizazio saiakera edo esku hartze politiko Estatu Batuen segurtasunaren aurkako erasotzat eta mehatxu zuzentzat hartuko zela. Hala, AEBk ziurta zezakeen Kuba ez zela erori Espainia dekadentea baino indartsuagoa zen Europako potentzia inperial baten eskuetan (nagusiki, Erresuma Batua), eta isilpean itxaron Kuba Espainiako Inperiotik independizatu ondoren bere kontrolpean noiz eroriko (haren hitzetan, “ondu”, fruta bezala). Horixe da garai hartan Estatu Batuek Kubarekiko hartu zituzten posizionamenduen eta ekintzen atzean zegoen arrazionalitate politikoa ulertzeko gakoa. Zentzu horretan ulertu dezakegu zergatik erabaki zuen administrazio iparramerikarrak ondorengo urteetan Kubako Independentzia Gerran esku hartzea.

1895ean piztu zen Kubako hirugarren Independentzia Gerra. Indar errebeldeek gero eta arrakasta handiagoa zuten Espainiako armadaren aurrean eta, ondorioz, Ulysses S. Grant presidentearengana hurbiltzen saiatu ziren diplomaziaren bitartez; baina hark uko egin zion errebeldeak ofizialki aitortzeari edo babes material zuzena emateari, Madrilekin gatazka zuzenak saiheste aldera. Nolanahi ere, egoera erabat aldatu zen USS Maine korazatu estatubatuarrak bere burua hondoratu zuenean Habanako portuan. Yankiek aipaturiko bandera faltsuko ekintza hori egin zuten *casus belli* bat lortzeko eta, horrekin, Independentzia Gerran zuzenean esku hartzen hasi ziren. Azkenean, 1898ko Parisko Ituna sinatzean, Espainiak behin betiko uko egin zien Kubarekiko subirotasun eskubide guztiei eta Estatu Batuen okupazio militar formaleko aldi bat abiarazi zen 1899ko urtarrilaren 1ean. Teller eranskinaren bidez, AEBk uko egin zion formalki Kuba anexionatzeari, baina bere tropek alde egiteko honako baldintza hau jarri zuen: Kubako Batzar Konstituziogileak 1901ean Platt eranskina onartzea. Konstituzioko eranskin horrek aldebiko harremana modu mugatzailean definitu zuen hiru hamarkadaz baino gehiagoz eta Washingtoni lege eskumena eman zion bai Kubako lurraldean barne ordena mantentzeko militarki esku hartzeko, bai eta funtsezko lur zatiak betiko errentatzera behartzeko ere, besteak beste itsasontzi baseak ezartzeko, horien artean, Guantanamoko base militarra. Eranskinean jasotako tutoretza-ahal hori behin baino gehiagotan gauzatu zen; esate baterako, Charles Edward Magoon gobernadoreak 1906 eta 1909 artean uhartearen administrazio militarra bere gain hartu zuen behin behinean, José Miguel Gómez errepublikako presidentearen aurkako altxamendu armatuaren ostean.

Azpimarratzekoa da 1898 ondoren ezarritako tutoretzak Ipar Ameriketako kapitalaren metaketa-fase berriarekin egiten zuela bat. Estatu Batuetako kapitalismoak batez ere herrialde barruan hedatzeari utzi, eta kanpora begira proiektatzeari ekin zion. Industria-ekoizpenak gero eta gehiago gainditzen zuen barne merkatuak hura xurgatzeko zuen gaitasuna eta kapital metaketak inbertsio, hornikuntza eta zirkulazio espazio berriak galdegiten zituen. Esku hartze politikoak inbertsio horien errentagarritasunerako baldintza orokorrak bermatzen zituen: jabetzaren egonkortasuna, aldeko gobernuak, aduanen kontrola eta ordena ekonomikoa mehatxatzen zuten gatazka sozialak erreprimitzeko gaitasuna.

1898 ondoren AEBk Kuban ezarritako tutoretzak Ipar Ameriketako kapitalaren metaketa-fase berriarekin egin zuen bat; Estatu Batuetako kapitalismoak batez ere herrialde barruan hedatzeari utzi, eta kanpora begira proiektatzeari ekin zion



Zeharkako hegemonia, 1933ko iraultza eta Batistaren goren unea (1934-1959)

Aldi honek Gerardo Machado erori ondorengo Kubaren eraldaketa barnebiltzen du, boterea hutsik geratzeak 1933ko iraultza eragin baitzuen; mugimendu horrek tokian tokiko eliteen interesei aurre egin zien behin-behineko gobernu erreformista eta nazionalista bat ezarri zuen. 1934ko Harremanen Ituna sinatzean Platt eranskina formalki indargabetu zen, Franklin D. Roosevelten administrazioaren "auzokide onaren politika" izenekoaren babesean. Dena den, esku hartze militarrerako eskumena deusezteak ez zuen gutxitu Estatu Batuek Karibeko uhartearekiko zuten kontrola. Hain zuzen, garai hartan onartu zen AEBko Kongesuan 1948ko Azukrearen Legea, Kubak Estatu Batuetako merkatuetan zehaztutako azukre kuotarekiko zuen egiturazko mendekotasuna finkatu zuen legea, hain justu, kanpo kapitalak nazio ekoizpenaren aurrean zuen nagusitasuna ziurtatuz. Tutoretza juridikoaren ordez zeharkako hegemonia ezartzeko beste arrazoi bat Latinoamerikako okupazio militarren ondorioz pilatutako kostu politikoak izan ziren. Washington eskualdean zuen gaitzespena gutxitzen eta bere eragina egonkortzen saiatu zen itunen, maileguen, merkatu kuoten eta aitortza diplomatikoen bidez eta ordena ziurtatzeko gaitasuna zuten lekuko estatu aparatuei babesa eskainiz, ageriko administrazio kolonial bat izateko beharrik gabe. Gainera, Estatu Batuetako kapitala aski barneratuta zegoen eta Kubaren mendekotasun komertziala aski sakona zen eta, horrenbestez, esku hartze militar iraunkorrerako beharra txikiagoa zen.

Desegonkortasun garai horren aurrean, Estatu Batuek Fulgencio Batista sargentu gaztea babestu zuten eta azkar batean nagusitu zen herrialdeko arbitro politiko moduan, zeharkako hegemoniako garai bati hasiera emanez, zeinetan AEBk itzalpetik presidenteak jartzen eta kentzen zituen ordena mantentzeko eta Washingtonen eragina bermatzeko. Ondoren, bere agintaldi konstituzionala izan zen 1940 eta 1944 bitartean. Demokrazia formaleko parentesi labur baten ondoren, zeinetan gobernuen ustelkeria nagusi izan zen, "batistarren goren unea" iritsi zen, eta horrek eman zion itxiera aldiari; izan ere, 1952an Batistak estatu kolpea eman zuen eta aldi konstituzionala bukarazi zuen, zuzeneko diktadura bati bide emanez.

Washington eskualdean zuen gaitzespena gutxitzen eta bere eragina egonkortzen saiatu zen itunen, maileguen, merkatu kuoten eta aitortza diplomatikoen bidez eta ordena ziurtatzeko gaitasuna zuten lekuko estatu aparatuei babesa eskainiz, ageriko administrazio kolonial bat izateko beharrik gabe

Gerra Hotzaren konfrontazio sistemikoa eta blokeoaren hasiera (1959-1991)

Uztailaren 26ko mugimendua (*Movimiento 26 de Julio*) izenekoak Batistaren diktadura militarra eraitsi zuen 1959ko urtarrilaren 1ean eta Fidel Castrok azkar lortu zuen nabarmentzea; horrek eskualdeko oreka geopolitikoa irauli zuen. Hasiera batean Washingtonek 1959ko urtarrilaren 7ko behin-behineko gobernu iraultzailea aitortu bazuen ere, Dwight D. Eisenhower presidenteak uko egin zion Castrorekin biltzeari kubatarrak urte hartako apirilean Washingtonera egin zuen bisitan , eta maiatzean nekazaritza-erreformari buruzko legea onartzearekin, aldebiko harremanak erabat hoztu ziren. Era berean, kapital estatubatuarreko petrolio findegiak eta telekomunikazio konpainiak ordainik gabe nazionalizatu zituzten eta, horrenbestez, estatubatuarrek uhartea kontrolatzeko zituzten oinarri materialak kolokan jarri ziren. Hortaz, Eisenhowerren gobernuak Kubaren azukre kuota bertan behera utzi zuen eta ezkutuko ezegonkortze planen prestaketa abiarazi zuen. 1961eko urtarrilaren 3an Washingtonek dekretuz harreman diplomatikoak formalki hautsi

Kapital estatubatuarreko petrolio findegiak eta telekomunikazio konpainiak ordainik gabe nazionalizatu zituzten eta, horrenbestez, estatubatuarrek uhartea kontrolatzeko zituzten oinarri materialak kolokan jarri ziren. Hortaz, Eisenhowerren gobernuak Kubaren azukre kuota bertan behera utzi zuen eta ezkutuko ezegonkortze planen prestaketa abiarazi zuen

ondoren, urte hartako apirilean John F. Kennedy presidente berriak Kubako erbesteratuen espedizio militarra baimendu zuen Cochinos badian, baina espedizioak huts egin zuen. Erasoaren erabateko porrotak Habanaren eta Sobietar Batasunaren arteko behin betiko hurbilketa eragin zuen eta, ondorioz, buru nuklear klandestinoak ezarri zituzten uhartean eta 1962ko urriko Misilen Krisia gertatu zen. Krisi horri amaiera emateko, Estatu Batuek uhartea ez inbaditzeko eta Turkian ezarririko jaurtigai iparramerikarrak kentzeko konpromisoa hartu zuten.

1962ko otsailean, Kennedyk aldebakarreko zigorrak gogortu zituen eta erabateko blokeo ekonomikoa ezarri zuen, aktibo kubatarren kontrol erregulazioak (*Cuban Assets Control Regulations*, CACR) iragarriz, Etsaiarekiko Merkataritza Legea izenekoaren agintaritzapean. Ondorengo hiru hamarkadetan zehar, Kubak bloke sozialistako aliatu estrategiko gisara jardun zuen, laguntza militarra, instruktoreak, aterpe politikoa eta baliabide materialak eskaniz mundu osoko mugimendu matxinatu antiinperialistei.

Garai historiko horretan, Kubak inperialismoaren kateak haustea lortu zuen eta estatu klientelar izatetik estatu burujabe izatera igaro zen. Aipatzekoa da Sobietar Batasunaren laguntzak erabateko garrantzia izan zuela eraldaketa sozialeko prozesua gauzatu ahal izateko oinarri materialak jartzerako garaian. Era berean, Kubako herri langilearen borroka iraultzaileari erantzunez, Estatu Batuek setio ekonomikoa eta politikoa gauzatzeko neurriak abiarazi zituzten, eta horrekin hasiera eman zitzaion blokeoaren estrategiari.

Carter Administrazioaren baretze taktikoa eta blokeoaren kodeketa parlamentarioa

Oro har gatazka zurruna izan bada ere, Jimmy Carterren gobernupean baretze diplomatikoko prozesu labur eta berri bat probatu zuten. Carterren barealdiak ez zuen Washingtonen helburu estrategikoak desagertzea eragin; aitzitik, horiek lortzeko bitarteko eraginkorrenen inguruko eztabaida bultzatu zuen. Estatu aparatuko zenbait sektorek uste zuten erabateko etsaitasunak Kubak Sobietar Batasunarekiko zuen dependentzia areagotu eta zenbait arazo konkreturen kudeaketa zaildu zezakeela, hala nola migrazioa, arrantza eta itsasoko mugaketa. 1977ko martxotik aurrera, Washingtoneko eta Habanako ordezkariek isilpeko elkarrizketa-txandak izan zituzten eta horien emaitza gisara AEBko herritarrei bidaiatzeko debekua aldi baterako kendu zieten eta urte horretako apirilean arrantza-mugei eta itsas mugei buruzko aldebiko akordioak sinatu zituzten.

Nolanahi ere, gerturapen horrek Florida hegoaldean finkatutako erbesteratu kubatarren erantzuna eragin zuen, garai hartan 750.000 pertsonak osatua. Sektore horrek, 59ko iraultza aurreko Kuba gidatzen zuen kazike-burgesiak zuzenduta, zuzeneko aktibismo politiko-elektoralera eta biolentzia terroristara jo zuen negoziazioak porrotera eramateko. Hori guztia erbesteratuek hauteskunde indar handia zuten testuinguru batean gertatu zen: Miami-Dade konderrian Carterren garaipena ziurtatu zuten, 1976ko sufragioen %58 izanik.

Gerra Hotza amaitu eta Kubak sobietarren babes ekonomikoa galduta, Estatu Batuetako Kongresuak bere gain hartu zituen blokeoaren diseinua eta kontrol zuzena. 1992ko demokrazia kubatarraren legeak (Torricelli Legea) eta 1996ko Kubako askatasun eta elkartasun demokratikorako legeak (Helms-Burton Legea) izaera beteazleko zigor guztiak irismen federaleko gorputz legal bakarrean formalki kodifikatzea ekarri zuten. Modu horretara, galarazi egin zen ezein presidentek merkataritza-murrizketak aldebakartasunez eta aurretiaz onespen legegilea jaso gabe altxatzea eta harremanak berrezartzeko baldintza bat jarri zuten: Kubako Alderdi Komunista baztertzen zuen trantsizioko gobernu bat ezartzea.

Fase historiko horrek Miamin finkatutako burgesia kubatarraren *lobby*a sofistikatzea ekarri zuen, bai eta Kubaren setio politiko eta ekonomikorako tresna nagusi gisa blokeoa sistematizatzea eta instituzionalizatzea ere. Azpimarratzekoa da Kubako kapitalaren eragin ahalmena lehen mailako kontua dela AEBko gobernuak fase honetatik aurrera egin zituen setio mugimenduak ulertzeko. Hori dela eta, ondorengo lerroetan *lobby* horren sorrera labur azaltzen saiatuko naiz, AEB uhartean gauzatzen ari den egungo erasoaldia eta Miamiko presio taldeak bertan duen eragina aztertu aurretik.


II. MIAMIKO *LOBBY* KUBATAR-AMERIKARRAREN SORRERA, GARAPENA ETA SOFISTIKAZIO INSTITUZIONALA

Lobby kubatarraren garapenak nagusiki bi fase ditu, esku hartzeko moduaren arabera bereiziak. Batetik, taktika terroristek ezaugarritutako fase bat dago eta, bestetik, politika institucionalean interbenitzera bideratuago dagoen

Carterrek Kubarekiko saiatu zuen barealdiak ez zuen Washingtonen helburu estrategikoak desagertzea eragin; aitzitik, horiek lortzeko bitarteko eraginkorrenen inguruko eztabaida bultzatu zuen



Kuba, estatu auzia: Estatu Batuen politikaren azterketa, Monroe doktrinatik hasi eta egungo ofentsibara arte — Garai Zabalza



Lobby ***kubatarraren garapenak nagusiki bi fase ditu, esku hartzeko moduaren arabera bereiziak. Batetik, taktika terroristek ezaugarritutako fase bat dago eta, bestetik, politika instituzionalean interbenitzera bideratuago dagoen egonkortze fase bat***

egonkortze fase bat. Esan gabe doa sektore hauek Estatu Batuetako politikan eragiteko duten gaitasuna ez dela inoiz ez autonomoa, ez mugagabea izan. Haien eragina handitu egin da haien helburu zehatzek estatuaren beharrizan zabalagoekin eta kapital estatubatuarraren frakzio jakinenekin bat egin dutenean.

Oinarri soziopolitikoa eta bide instituzionaletarako trantsizioa

Fidel Castroren gobernua finkatu ondoren, 1960ko hamarkadako erbesteratuen lehen fluxuak (gehienak sektore aberatsez, enpresariez eta Batistaren erregimeneko funtzionario militar ohiez osatuak) Miamiko (Florida) metropoli-eremuan ezarri ziren gehienbat. Hasiera batean, ekonomikoki txertatzeko zailtasunak izan zituzten, baina berehala gainditu zituzten zailtasunok Luis Botifoll kubatar jatorriko bankariak zuzendutako Banku Errepublikarrak finantza-krediturako lehentasunezko lerroak eman zizkielako eta horrek denda txiki eta ertainen sare sendo baten loraldia erraztu zuelako, bai eta Habana Txikiko *Calle Ocho* inguruan kultura eta negozioen loraldia eragin ere. Hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadetan, erbesteko oposizioa ekintza armatuaren inguruan antolatu zen ia bere osotasunean eta eskuin muturreko fakzio nazionalistak nagusitu ziren, hala nola, Alpha 66 talde paramilitarra, MNC New Jerseyko mugimendu nazionalista kubatarra eta Omega 7 erakunde terrorista. Azken horrek bahiketak, merkataritza interesen sabotajea eta atentatuak gauzatu zituen AEBn bertan. Baina Estatu Batuetako inteligentzia zerbitzuek pixkanaka babes ofiziala emateari utzi zioten eta pixkanaka gizartearen arbuioa areagotu zen, besteak beste 1976an Barbadoseko kostan 455 hegaldia egiten ari zen Aerolínea Cubanaren hegazkina leherrarazi baitzuten, baita beste ekintza terrorista batzuk egin ere, eta, ondorioz, erbestean zeuden kubatarrak bestelako taktika batzuk entseatzen hasi behar izan ziren Estatu Batuetako barne politikaren baitako bide konstituzionalen barruan.

FNCA eta AIPAC eredua

1981ean Ronald Reagan presidente bihurtzeak kubatar-amerikarren estrategia organizatiboa erabat aldarazi zuen. Une hartan Reaganen Segurtasun Nazionaleko kontseilari zen Richard Allenen iniziatibaz, Jorge Mas Canosa, Raúl Masvidal eta Carlos Canosa erbesteratutako enpresariek fundazio nazional kubatar-amerikarra (Fundación Nacional Cubano Americana, FNCA) eratu zuten 1981ean bertan, Mas Canosaren zuzendaritzapean. FNCAren egitura berariaz prestatu zen AIPAC Israelen aldeko eragin handiko presio taldearen atzekoa izan zedin. FNCAk zereginak banatzeko sistema sofistikatu bat diseinatu zuen eta baliabideak bereizi zituen: analisi eta ikerketa akademikoa bideratzeko; bi alderdietako (bai errepublikarrak, bai demokratak) legegileekin kudeaketa-lan politikoak egiteko; eta kanpainetarako diru ekarpenen kanalizazio masiboa zuzentzeko, *Free Cuba PAC* eta antzeko bitarteko finantzarioak baliatuz.

FNCAren egitura berariaz prestatu zen AIPAC Israelen aldeko eragin handiko presio taldearen atzekoa izan zedin

FNCAko zuzendaritza-batzordea batez ere Miamiko banku eta inportazio eta esportazio sektoreetako lider garrantzitsuenek osatu zuten. Erakundeak eragin legegile bipartidista eztabaidaezina finkatu zuen eta 1983ko Kubarako irrati difusioaren legea, 1985ean Radio Martíren emisioa abiarazi zuena, eta ondorengo 1990ko Kubarako teledifusioaren legea, castrismoaren aurkako TV Martí propaganda aparatua sortu zuena, onartzea lortu zuen.

US-Cuba Democracy PAC taldearen goraldi garaikidea

Jorge Mas Canosaren heriotzak eta FNCAren hegemonia bateratuaren amaierak eraginda, erbeste kubatarraren indar politikoak sakabanatu egin ziren. 2003ko maiatzean, *US-Cuba Democracy PAC* legalki eratu zen, komunitateko hegal moderatuan indartzen ari ziren posizio bakegileen aurrean isolamendu politikak berpizteko helburuarekin. Gus Machado automobilgintzako enpresariak eta Maurixio Claver-Carone aboka-

tuak sortu zuten eta ekintza politikoko batzorde forma zuen (*Public Affairs Committee*, PAC) atzerriko *lobby* independente handiena bihurtu zen AEBko espektro politiko osoan funtsak erakarri eta emateari zegokionez, Israelen aldeko *lobby*ak alde batera utziz gero. *US-Cuba Democracy PAC* taldeak maila federaleko politika parlamentarioak atzemateko teknika perfekzionatu zuen. Haien baliabide ekonomikoak herrialdearen barnealdeko estatuetako ordezkari eta senatari demokrata zein errepublikarrei bideratu zizkieten batez ere, Miamiko migrazio dinamiketatik urrun kokatzen zirenak, baina bozka erabakigarria zutenak muga zergen, nekazaritzaren eta kanpo merkataritzaren inguruko konpetentziak zituzten komiteetan. Ekarpenei esker, PAC horrek modu zuzenean eragin zuen, gutxienez, 18 kongresukide federalen bozka-erregistroan: nekazaritza irekitzearen aldeko merkataritza-posizioak izatetik, sistematikoki merkataritza-blokeoaren zurruntasuna mantentzearen alde bozkatzera igaro ziren.

III. TRUMP ADMINISTRAZIOAREN OFENTSIBA BERRIA (2025-2026): FLORIDAKO *LOBBY*A BOTEREAN


2025eko urtarrilean Trump Bulego Obalera iristeak Estatu Batuek Karibeko uhartearen aurkako ofentsiba gogortzea eragin zuen, segurtasun nazionaleko estrategia berriarekin. Mendebaldeko bloke inperialistak bizi duen krisi historikoak bultzatuta, Latinoamerikaren mendekotasuna bermatzera bideratutako politikak indartu dira Donroe doktrina berriarekin; hau da, Monroe doktrina historikoaren eguneratzearekin. Zentzu horretan, aipagaria da *lobby* kubatarra gobernu errepublikarraren kanpo politika konfiguratzeko garaian hartzen ari den zentralitatea, Marco Rubioren figuran pertsonifikatuta.

Marco Rubioren rola hemisferioko diplomaziaren zuzendari gisara

2025eko urtarrilaren 20an, Marco Rubio kubatar jatorriko senatari ohia Estatu Batuetako 72. estatu idazkari hautatu zuten aho batez, eta horrek nabarmen aldatu zuen AEBko kanpo politika Karibeko arroarekiko eta Hego Amerikarekiko. Trumpek, 2025eko maiatzean, Segurtasun Nazionaleko aholkulari ere izendatu zuen eta, modu horretara, Rubiok Estatu Batuen diplomaziaren historia garaikidean aurrekaririk gabeko eragin instituzionala metatu zuen. Rubiok erbesteratuen *lobby*aren hizkera tradizionala moldatu du, Donald Trumpen segurtasun nazionaleko doktrina nazionalistarekin bateragarria den logika baten baitan txertatzeko. Haren argudiaketak gogoeta ideologikoetara mugatzetik urrun, Rubiok Habanako gobernua erabat itotzea justifikatzen du esanez berau berehalako eta egiazko mehatxua dela Estatu Batuen barne egonkortasunerako. Kontaketa horren arabera, Kuba "tiraniaren troika" izenekoaren parte da eta leporatzen diote Txinaren presentzia militarra eta inteligentziazkoa erraztea, Errusiako bigilantzia-base elektonikoak izatea eta Hezbollahren eta Iranen zelulei babes ematea.

Mendebaldeko bloke inperialistak bizi duen krisi historikoak bultzatuta, Latinoamerikaren mendekotasuna bermatzera bideratutako politikak indartu dira Donroe doktrina berriarekin; hau da, Monroe doktrina historikoaren eguneratzearekin

Azken ofentsiba 2025eko urtarrilaren 31n hasi zen formalki, Rubiok Kongresu Federalean ofizialki iragarri baitzuen irten berri zen Joe Bidenen gobernuak uharteaz ezarritako aginduak bertan behera uzten zituela.



GAESA itotzea eta 14404 Agindu Betearazlearen araberako bigarren mailako zigorrak

Mauricio Claver-Caronek, Segurtasun Nazionaleko Kontseiluaren Mendebaldeko Hemisferioko Gaien zuzendariak, diseinatu zuen presio kanpaina, "alderantzizko domino efektua" deritzon premisa taktikoaren arabera: Kubako finantza sareen kolapsoak Caracas eta Managuako gobernu aliatuak erortzea eragingo luke, bi horiek Habanako inteligentzia zerbitzu militarrek sostengatzen baitituzte. Helburu nagusia zen enpresa-administraziorako konglomeratu militarra (Grupo de Administración Empresarial SA, GAESA); izan ere, hark kontrolatzen ditu turismoa (Gaviota SA), telekomunikazioak, sare minoristak (CIMEX) eta nazioarteko finantza bankua (Banco Financiero Internacional, BFI). Setio estrategikoa presidentearen bi dekreturen bidez indartu zuten:

• 14380 Agindu Betearazlea (2026ko urtarrilaren 29koa): Kuba "ezohiko eta aparteko mehatxutzat" jo zuten eta uhartea petrolioz hornitzen zuten herrialdeentzako muga-zergak eta inhabilitazioak onartu zituzten. Horren ondorioz, AEBko armadak aldizkako itsas blokeoa ezarri zuen 2026ko otsailean eta Mexikoko Pemex petrolio enpresak aldi baterako eten zituen bidalketak.

• 14404 Agindu Betearazlea (2026ko maiatzaren 1ekoa): IEEPA legearen (nazioarteko larrialdiko botere ekonomikoei buruzko legea) babespean, GAESAren eta haren presidentearen, Ania Guillermina Lastres Morerarен, aktiboak blokeatu zituzten. Bigarren mailako zigorrak ere ezarri zituzten, GAESArekin loturiko transakzioak prozesatzen zituen ezein banku atzerritar dolarraren sistema finantzariotik kanpo uztearekin mehatxatuz.

Zigorrek berehalako eragina izan zuten nazioarteko turismoan, Kubako ekonomiaren dibisa-iturri nagusian, zeinak, aurreko ekitaldian, BPGaren %50 eta zerbitzu sektorearen %80 osatu baitzuen. Estatu Batuetan presentzia handia duten kontsortzio turistiko multionazional garrantzitsuek, hala nola, Blue Diamond Resorts korporazio kanadiarrak edota Iberostar hotel kate espainiarrak, bertan behera utzi zituzten modu diskretu eta ezustekoan Gaviota SA firma militarraren jabetzekin zituzten errenta eta marka gestioko akordioak 2026ko maiatzean, Washingtonen zigor finantzarioak saiheste aldera. Zigorren eraginez, Kanadako Sherritt International meatzaritza-multinazionalak ere akordio ez lotesle bat sinatu behar izan zuen 2026ko maiatzean, Moa Nickel SA aldi baterako enpresa elkartean zuen %55eko partaidetza Gillon Capital inbertsio sozietateari transferituz, hain zuzen, Estatu Batuetako kontrol finantzariorako agentziek egindako presio eta ohartarazpenen ondorioz.

Ofentsiba osagarriak: legeak baliatuz ezegonkortzea eta misio medikoak bertan behera uztea

Alderdi legalari erreparatuz, uhartearen merkataritza-subirautzaren aurkako ofentsiba Estatu Batuetako gorte federaletan gauzatu da, Helms-Burton Legearen III. titulua berraktibatuz. Disputa honen mugak ezartzen dituen eredu kasua Exxon Mobil petrolio korporazioak Unión Cuba Petróleo estatu korporazioaren aurka jarritako milioi askoko demanda da, 1959an findegiak desjabetu zituela eta. Berehala ebatziko da auzi hori Estatu Batuetako Gorte Gorenean eta horrek demanda zibil masiboei eta kubatar jatorriko atzerriko ezein kontu edo aktibo enbargatzeari bide eman diezaioke.

Era berean, Kubako misio medikoen aurkako erasoaldia gauzatzen ari dira. Washington presio diplomatikoak koordinatzen ari da hainbat herrialdetan, misio horiek gizakien salerosketatzat eta bortxazko lantzat joz. Horren ondorioz, pixkanaka mediku kubatarrak alde batera uzten ari dira Guatemalan, Hondurasen, Bahametan, Antigua eta Barbudan eta Granadan, eta kontratuak bertan behera utzi dituzte Italiako Calabria eskualdean. Hala, Habanari ezinbesteko dibisa iturri bat kendu diote.



Estatu Batuak gaur egun Kubaren aurka gauzatzen ari diren ofentsiba bi elementuren bateratze historikoaren ondorio da: batetik, Estatu Batuek, euren nagusitasun inperiala galtzen ari direnez, mendebaldeko hemisferioa erabat dominatzeko beharra dute eta, bestetik, erbesteratutako kapital kubatarrak uhartearen kontrol politikoa berrartzeko aukera du

ONDORIOAK

Estatu Batuak gaur egun Kubaren aurka gauzatzen ari diren ofentsiba bi elementuren bateratze historikoaren ondorio da: batetik, Estatu Batuek, euren nagusitasun inperiala galtzen ari direnez, mendebaldeko hemisferioa erabat dominatzeko beharra dute eta, bestetik, erbesteratutako kapital kubatarrak uhartearen kontrol politikoa berrartzeko aukera du. Hau da, Kubako eliteek uharteko boterea berreskuratzeko duten proiektuak zentzu historiko handiagoa du orain, Estatu Batuetako oligarkiak, bere nagusitasun globala galdu duenez, nazioarteko potentzia berriei aurre egiteko Latinoamerikaren kontrola bermatzeko beharra duen garai honetan. Hortaz, momentu historiko jakin honetan lortu du Miamiko *lobby*ak eragiteko gaitasunik handiena, bete-betean egiten baitu bat AEBko kapitalaren beharrekin.

Bloke atlantistaren hegemoniaren amaiera ekoizpen modu kapitalistaren egungo fasearen agortze edo gainbeheraren ondorio eta isla da eta, horren ondorioz, Estatu Batuetako gobernuak Amerikako kontinentea kontrolatzeko beharra dauka harengandik hurbilen dauden lurraldeetan segurtasun perimetroa bermatzeko Asia-Pazifikoa ardatzari heldu aurretik, azken horretan baitauka zain bere lehiakiderik handiena: Txina. Analisi marko honen baitan uler ditzakegu Venezuelako operazioa, Peruko eta Kolonbiako hauteskundeetako balizko esku hartzea, Groenlandiako auzia edota Kubako setioa bera. Ikuspegi orokor hori kontuan hartuz ulertu behar ditugu jarraian aletuko diren ondorio konkretuagoak.

Hasteko, Kuba dominatzeko nahia ez da orain hasi, ezta Gerra Hotzaren garaian ere. XIX. mendean "fruta ondua", Monroe eta "ageriko patua" doktrinak ezarri zirenetik, Estatu Batuek euren botere inperiala proiektatu dute Karibeko uharte txikian. Eskualde mailako zein munduko panorama geopolitikoa eta Estatu Batuetako kapitalaren metaketa-beharrak aldatzen joan ahala, Kuba kontrolatzeko mekanismo inperialak eraldatzen joan dira, artikulu honetan aztertu ditugun fase bakoitzaren ezaugarrien arabera (kontrol politiko zuzena, zeharkako hegemonia eta blokeoa).

Gaur egun, eboluzio horrek gerra ekonomikoa egiazko estatu politika bihurtu du. Blokeoa Kubako Iraultzaren garaipenaren ondorioz instituzionalizatu bazen ere, Estatu Batuetako





2026an Estatu Batuek Kubaren aurka abiatutako ofentsibak zuzenean eraso die herrialdeko finantza arteriei (GAESA), bigarren mailako zigorren eta itsas blokeoen bidez, atzerriko inbertsioa, turismoa eta energia hornikuntza nahita uxatuz, estatuaren porrot ekonomikoa eragin nahian


Kongresuak SESB erortzea baliatu zuen politika hori bere egiteko koiuntura moduan, Torricelli eta Helms-Burton Legeen bidez, gobernuaren zigorrak lurraldez kanpoko lege federal mugiezin bihurtuz, erregimen aldaketa bat behartu nahian.

Lege egitura zurrun hori posible izan da erbesteratutako eliteek instituzioak atzeman izanari esker. Miamiko *lobby* kubatar-amerikarra sofistikatu ondoren, presio talde horiek gai izan ziren AEBko erabaki parlamentario federalak euren lekuko interesetara azpiratzeko, hauteskunde kanpainak estrategikoki finantzatuz. Eragin gaitasun hori bere puntu gorenera iritsi da *lobby*ko figura nagusiak Estatu Batuetako boterearen nukleora iritsi direnean, hain zuzen, Marco Rubio 2025ean estatu idazkari eta Segurtasun Nazionaleko aholkulari bihurtu baitzen. Mugarri horrek segurtasun nazionalaren instrumentalizazio ideologikoa kontsolidatu du eta hitz egiteko modua era esplizituan birmoldatu dela islatzen du: Kubaren aurkako asfixia jada ez dute arrazoi ideologikoek soilik justifikatzen, baizik eta uhartea atzerriko potentziekin –Txina, Errusia eta Iran, kasurako– lotutako berehalako mehatxu militar gisara aurkezten dute.

Plano materialean, kontaketa hori baliagarria da Kubako estatuaren oinarri ekonomikoen aurkako basakeria justifikatzeko. Claver-Caronek bultzatutako “alderantzizko domino efektua” doktrina baliatuz. 2026ko ofentsibak zuzenean eraso die herrialdeko finantza arteriei (GAESA), bigarren mailako zigorren eta itsas blokeoen bidez, atzerriko inbertsioa, turismoa eta energia hornikuntza nahita uxatuz, estatuaren porrot ekonomikoa eragin nahian. Aldi berean, ofentsibak nazioarteko elkartasunaren aurka jo du, erabat isolatzeko estrategia baten bidez. Horretarako, Estatu Batuetako diplomaziak beste herrialde batzuk finantzarioki itotzen ditu eta presio politiko zuzenak eragiten dizkie, mediku brigada kubatarrak desegiteko eta uhartea funtsezko dibisa-iturri hori gabe uzteko.

Nolanahi ere, dimentsio anitzeko asfixia-kanpaina horrek bere barne kontraesanak agerian uzten ditu, migrazio bumeran saihestezin bat eragiten baitu. Energia, turismoa eta baliabide finantzarioak itoaraziz, AEBk Kuban bizitzea ezinezko egiten du eta, ondorioz, aurrekaririk gabeko migrazio krisi bat eragin du. Horrek Estatu Batuetako hegoaldeko mugak gain hartzea eragiten du, erakutsiz Habana ezegonkortzeko baliatzen ari diren politika inperialek AEBko barne segurtasuna zuzenean kaltetzen dutela azken finean.

Bukatzeko, datozen hilabeteak funtsezkoak izango dira uhartearen etorkizunerako; ikusiko dugu ea setioa Kubako gobernua botatzeko erasoaldi militar zuzen bihurtzen den. ●



Kubako herriaren ardura internazionalista heroikoa

Testua — **Lucia Manara**

Fidel Castroren esanetan, "internazionalismorik gabe Kubako Iraultza ez litzateke existituko ere. Internazionalista izatea gizateriarekin dugun zorra kitatzea da". Hitz horiekin, iraultzaile ezagunak internazionalismoa eta Iraultza kubatarraren zortea bereizezin gisa lotzen zituen. "Edozein herrialdetan ideia baten garaipena beti hainbat belaunaldiren ahaleginaren fruitu eta gizateria osoaren parte-hartzeari esker da"



Kubako Santiago hirian 1978ko uztailaren 26a zen Fidel Castrok, Kubako Iraultzari hasiera eman zion Moncada kuartelari eginiko erasoaren 25. urteurreneko ekitaldian, Kubaren sentimendu internazionalista bere esaldi ospetsuan bildu zuenean: "Internazionalismorik gabe Kubako Iraultza ez litzateke existituko ere. Internazionalista izatea gizateriarekin dugun zorra kitatzea da". Hitz horiekin, iraultzaile ezagunak internazionalismoa eta Iraultza kubatarraren zortea bereizezin gisa lotzen zituen. "Edozein herrialdetan ideia baten garaipena beti hainbat belaunaldiren ahaleginaren fruitu eta gizateria osoaren parte-hartzeari esker da": iraultzaileen hainbat belaunaldiren esfortzuari eta konpromiso politikoari esker Fulgencio Batistaren erregimenaren –yankien inperioko diktadura proxya– garaipena lortu zen. Ez ziren soilik komunista eta iraultzaile konprometituak izan euren ideiekin eta ekintzekin lagundu zutenak –Marx, Engels, Lenin, Espartaco, eta Parisko Komuna aipatzen ditu Fidelek, besteak beste–, eredu izan baitziren bidea irekiz munduko beste garai eta lekuetan, mundu guztiko emakume eta gizonek Kubako Iraultzaren garaipenaren alde lagundu baitzuten; ospetsuena Ernesto "Che" Guevara komandante argentinarra izan zen, haren Boliviako mendietako martiritzaren ondorioz inperialismoaren kontrako ikur eta militanteen belaunaldien eredu bilakatu baitzen. Haiekin eta aunitzez gehiagorekin zorretan egonik, Kubako Iraultza aurrera ateratzea ahalbidetu zuen marxismo iraultzailearekin zuen zorra kitatzeko aukera herrialde bat eraikitzea izanen litzateke, aberri sendoa eta eredugarria, beti antiinperialismoaren eta eskuzabaltasun internazionalistaren alde konprometitua legokeena. Ideia horretan errotu zen abertzaletasun kubatar iraultzailearen eta internazionalismoaren bat etortzea, blokeo ekonomikoaren, komertzialaren eta finantzarioaren momenturik zailenetan ere jarraitu zuena.

INTERNAZIONALISMO KUBATAR HISTORIKOA

Beste herriekiko elkartasuna eta internazionalismoa Kubako nazioaren balio sistemaren eta tradizio patriotiko eta iraultzailearen parte dira 1959ko iraultza baino lehenagotik ere, kolonizazioaren, esklabotzaren eta migrazioen historiak ekarpena egin baitzuen balio horien sorreran, baita Kubako herriaren sustrai multietnikoen sorreran ere. Hala eta guztiz ere, Kubako espainiar kolonialismoaren aurkako eta independentziaren aldeko borrokaren garaia izan zen haren borroka konpromiso antiinperialista latinoamerikarrarekin lotzeaz gain, gizateriaren emantzipazioaren aldeko proiektu politiko baten alde egiteko kontzientzia sakona eman ziona, Kubako abertzaletasun iraultzailea Marco Rubioren txobinismo inperialistatik argi eta garbi bereiziz: "Aberria gizatasuna da, hurbilen ikusten dugun eta jaiotzea tokatu zitzaigun gizadiaren zatitxoa da; eta ezin dira izen santu baten gezurraren bidez alferrikako monarkiak, erlijio konkordunak edo politika lotsagabe eta gosetiak garatzen utzi, ezta bekatu horiei maiz aberri izena ematen bazaie ere, gizakiak ezin du gizaki gisa duen betebeharra ukatu, hurbilen duen eremuan". José Martíren hitzak dira, Kubako heroi nazionala, iraultzailea eta idazlea, Kubako Independentzia Gerran borrokan hila, eta Latinoamerikan AEBren kontrako eta antiinperialismoaren aldeko sentimenduak garatzen eta pizten lehenbizikoetarikoa, belatz yankia bere itzala kontinentearen gainean proiektatzen hasi zenean hain justu.

1959ko urtarrilaren 1etik aurrera, internazionalismoa Kubako hezkuntzaren parte bilakatu zen, milaka koadro politiko, militar eta teknikoren eraketa integralerako osagai eta ardatz izanik, Kubako herriaren sentimendu nazionalaren oinarri objektibo izateaz gainera. Aldi berean, elkartasun internazionalista Kubako Errepublikaren kanpo politika gidatzeko printzipio bilakatu zen. Lehenik eta behin, zeren eta Kubak Estatu Batuekin eta ofentsiba inperialarekin zituen harremanak eten eta gero bloke sobietikoak eskaini zion laguntza estrategikoak iraultzaren

Kubako herriaren ardura internazionalista heroikoa — Lucia Manara



bidez sorturiko Estatu kubatarraren biziraupena eta independentzia ahalbidetu baitzuen, ez ELEK (COMECON) eta espezialista eta teknikari internazionalen laguntza ordainezinaren bidez soilik, baizik eta arma sobietikoen ekarpen garrantzitsuari esker ere. Cochinos badian yankien inbasio mertzenarioaren porrot ikusgarri eta biribila zigilatzeko erabili ziren armok, eta urte batzuk beranduago milaka soldadu kubatarrek hartu zituzten, euren biziak Angola eta Etiopian sakrifikatzeko prest egonik. Bigarrenik, konpromiso internazionalista kubatar amaigabeak, etika eta justizia kontua izateaz gain, bere diplomazia-eredua eta aliantza antiinperialistak egituratu baititu eta, bloke sobietarraren sakabanatzearen ondotik, aliantza estrategikoetarako eta legitimazio internazionalerako bide gisa balio izan baitu, duela hainbat hamarkada Kuba itotzen tematutako AEBk menderatutako munduan, zeinak Kuba kolonia estatubatuar bilakatzeko eta akabatzeko helburu bikoitza duen, neokolonialismoaren kontrako erresistentziaren ikur eta mugimendu antiinperialisten eta sozialisten inspirazio iturri baita irla mundu zabalean.



Agertoki internazionalean AEBren presio inperialek erasotua, blokeatua eta isolatua zegoela, Kubak bere burua askapen nazionalaren aldeko eta inperialismoaren eta kolonialismoaren aurkako mugimenduen mundu mailako hiriburu gisa jarri zuen, mundu osoko herri zapalduen esperantza iturri, eta borrokaren eta erresistentziaren ikur internazional

KUBAREN INPERIALISMOAREN KONTRAKO BORROKA HEROIKOA "DAGOEN LEKUAN DAGOELA"

Inperialista yankiek elkartasuna erreakzioa eta faxismoa esportatzearen bidez adierazi eta neokolonialismoa nagusitasun inperialaren marko gisa ezartzen zuten bitartean, Kuba sozialista konpromiso antiinperialistaren eta iraultzailearen aldeko adibide epikoenetariko bat bihurtzen ari zen XX. mendearen bigarren erdian. Agertoki internazionalean AEBren presio inperialek erasotua, blokeatua eta isolatua zegoela, Kubak bere burua askapen nazionalaren aldeko eta inperialismoaren eta kolonialismoaren aurkako mugimenduen mundu mailako hiriburu gisa jarri zuen, mundu osoko herri zapalduen esperantza iturri, eta borrokaren eta erresistentziaren ikur internazional. Erlatiboki txikia den uharte horren ahalegin heroikoak zuzen balioesteko, gogoratu behar da historia horren momentu erabakigarrienak munduko bazter guztietan diktadurek eta matxinaden aurkako borrokek –yankiek finantzatuak, entrenatuak eta armaz hornituak– torturatzen, hiltzen, bahitzen, zigortzen eta desagertze masiboak eragiten zituzten garaiak izan zirela, AEBren inbasio zuzenaz aprobetxatzen ez zirelarik, Guatemalan hasi (1954) eta Panaman buka (1990), artean iza-

nik Kongo (1961), Brasil (1964), Indonesia (1965), Dominikar Errepublika (1965), Vietnam, Laos eta Kanbodia (1960 eta 1970eko hamarkadak), Txile (1973), El Salvador (1981), Grenada (1983)... bidenabar Gladio operazioaren sare antikomunistak Europa zaharrean josiz. Urte horietan FARek (Fuerzas Armadas Revolucionarias de Cuba) –garai hartan, yankien gibeletik, kontinente amerikarreko bigarren ejertzitorik handiena zirenzenbait gatazka antiinperialistetan parte hartu zuen, tropak esku hartze militarretan zabalduz, zein laguntza diplomatikoa, politikoa, logistikoa eta militarra eskainiz, espioitza eta inteligentzia lanak eginez edota maila teknikoan, medikoan eta hezkuntzan laguntza emanez.

Kubak bere Iraultza finkatu bezain laster, kontinenteko iraultzari bihotz ematen hasi zitzaion, mugimendu gerrilleroak antolatuz eta sustatuz, eta Latinoamerika osoko borrokalari gehienen plataforma logistikoa eta operatiboa izanez. Kubara entrenamendu eta formakuntza militarra jasotzeko asmoz Bolivia, Guatemala, Nikaragua, Peru, Kolonbia, Venezuela, Argentina, Uruguai eta El Salvadorretik iristen ziren. 1965ean, Fidel Castrori adio erranik, Ernesto Guevarak Kubatik alde eginen zuela idatzi zuen bazihoala "betebehar guztietan sakratuena betetzeko: inperialismoaren kontra borrokatzea, dagoen lekuan dagoela". Kongora joan zen, eta ondotik Boliviara; handik ez zen inoiz itzuli. Harekin edo haren adibideak inspiraturik, 300.000 kubatarrek baino gehiagok misioak egin zituzten atzerrian eremu militarrean soilik, eta horietako aunitz euren eginbehar internazionalistan zendu ziren.

Horrela jarraitu zuen Fidelek arestian aipatutako hitzaldian: "Soldadu kubatarrak senidetutako Algeriako Errepublikarantz abiatu ziren 1963an kanpo erasoen aitzinean babesteko, independentziaren aldeko borroka heroikoki irabazi ondoko hilabeteetan haren lurraldearen zati bat kentzen saiatzen ari zirelarik. 1973an Kubako soldaduak Siriara joan ziren herrialde hark, sionista oldartzaileen aurka izandako azken gerraren harira, laguntza eskatu baitzigun. Borrokalari kubatarrek Ginea Bissauren eta Angolaren askapenaren alde borrokatu eta bizia eman zuten, kolonialismo portugesaren aitzinean". Algerian, Kubak 22 tankeko bataioiarekin parte hartu zuen, artilleria eta mortero taldeez, tankeen aurkako kanoien bateriaz eta ehundaka soldaduz gain. Yom Kipurreko gerraren azkeneko egunetan, tanke brigada batekin parte hartu zuen konbateetan. Urte horietan beretan Kubak hainbat eratan egin zuen Vietnamen askapenaren alde: Hego Vietnamgo Askapenerako Fronte Nazionala aintzatesten lehengo herrialdea izan zen 1960an, eta Vietnamgo Gerran zehar elkartasun irmoa erakutsi zuen, laguntza politikoa eta diplomatikoa bermatuz eta tekniko, instruktore eta militar adituak zein mediku eta ingeniari jakitunak bidaliz, ahalegin belikoan zehar zein hurrengo urteetan ere.

1975ean Carlota operazioa hasi zen, Kubak atzerrian egindako operaziorik handiena, 1843an Kuban izandako esklaboen matxinada handienetako baten buru izan zen esklaboaren omenez izendatua. Afrikarekin zuen anaitasunaren irudi izan zen, kolonizazioaren, esklabotzaren eta apalkuntzaren uztarripean egondako mendeen

Kubara entrenamendu eta formakuntza militarra jasotzeko asmoz Bolivia, Guatemala, Nikaragua, Peru, Kolonbia, Venezuela, Argentina, Uruguai eta El Salvadorretik iristen ziren. 1965ean, Fidel Castrori adio erranik, Ernesto Guevarak Kubatik alde eginen zuela idatzi zuen "betebehar guztietan sakratuena betetzeko: inperialismoaren kontra borrokatzea, dagoen lekuan dagoela". Kongora joan zen, eta ondotik Boliviara; handik ez zen inoiz itzuli. Harekin edo haren adibideak inspiraturik, 300.000 kubatarrek baino gehiagok misioak egin zituzten atzerrian eremu militarrean soilik

ondotik ernatzen hasia zena. 450.000 kubatar inguruk, artean mediku, irakasle, ingeniari eta soldaduk, Angolan jardun zuten 1991n operazioaren amaierara arte, portugesen zapalkuntzaren aurkako Angolako independentzia gerraren alde eginez, eta baita Hegoafrika supremazistaren eta Zaireren erasoaldiaren aurrean ere, CIAk babestutakoa. Angolaren independentziaren finkatzea, Namibiaren independentzia eta Hegoafrikako apartheid erregimenaren behin betiko ahultzea ere Carlota operazioan eroritako 2.600 kubatar baino gehiagoren odolaren bidez idatzi ziren.

1977. eta 1989. urteen artean 12.000 borrokalari kubatarrek baino gehiagok osatutako tropak Derg eta Etiopiako Herri Errepublikaren gobernu sozialistaren aldamenean borrokatu zuen Etiopian, Hailé Selassié enperadorea agintetik bota berri baitzuten, feudalismoa abolitu eta nazionalizazio kanpaina hasi, alfabetatze masiboa sustatu eta nekazari-erreforma egitearekin batera. Etiopian ere, kubatarrek inperialismo yankiak indartutako tropen aurka egin behar izan zuten eta Ogadenen ejertzito somaliarra kanporatzen lagundu zuten.

Urte horietan beretan, Nikaragua sandinista lehen urratsak ematen ari zen, Iraultza kubatarrean inspiratua. Irla sozialistak gerrillaren garaian babesa eta laguntza eman zion, eta hurrengo urteetan 2.500 militar baino gehiago bidali zizkion, herrialde sandinistaren segurtasun eta inteligentzia zerbitzuak zuzentzeko bereziki. Gainera, 1979 eta 1990 artean, iraultzak markatutako helburuetako batzuk lortzen modu aktiboan lagundu zuen Kubak, irakasleak, medikuak eta osasungintzako profesionalak bidaliz.

Karibean betiere eta 1979an, Kubak Maurice Bishopek bultzatutako Grenadako iraultzaren kausa babestu zuen, teknikoak eta espezialistak bidaliz. Esperientzia sozialistarekin amaitu zuen yankien inbasioaren aurretiko hilabete gutxi horietan, iraultzak nekazari-erreforma bat sustatu zuen Kubaren laguntzarekin, doako osasuna eta hezkuntza ezarri zituen, eta alfabetizazio kanpaina masiboa hasi zuen. AEBk ezin zion ez ikusiarena egin ingelesez mintzo den herri beltz batek gidatutako iraultzaren mehatxuari euren kostetatik horren gertu egonik, non arrazakeriak eta pobrezia estrukturalak milioika pertsona arrazializaturen norakoa zehazten jarraitzen duen. Azkenik, 1983an irlatxoa inbaditu zutelarik, bertan zeuden kubatarrek –Grenada iraultzaile eta sozialista eraikitzeko joanak ziren militarrak eta zibilak– borrokaldietan parte hartu zuten.







"DAUKAGUNA PARTEKATU, EZ SOBERAN DUGUNA": BLOKEATUTAKO KUBAK BESTE HERRIEI EMANDAKO LAGUNTZA MEDIKOA

1991k SESBen bukaera eta Europako sozialismoaren sakabanatzea ekarri zuen. Era berean, Kubak atzerriko salerosketen %85 galdu zuen –aurreko hamarkadetako kanpainetan erabilitako gerrarako materialaren hornikuntza barne hartzen zuen eta FAR kontinenteko bigarren ejertzito handiena bilakatua zuen, hain zuzen ere– eta estatubatuarrek irlari eragindako blokeoa gogortu zen. "Garai berezia" deitu zitzaion aldia hasia zen. Eskasia eta depresio ekonomikoak baldintzatutako garai hartan ere Kubak ez zion herrien artean elkartasun internazionalista erakusteari utzi, "daukaguna partekatu, ez soberan duguna" lelopean. Areago, AEB ziur zegoen komunismoari amaiera eman ziola, eta marxismoaren ondarea eta biziarazi zituen deskolonizazioaren aldeko borrokak –Kubako Iraultza barne– gutxiesten eta deabrutzen jarraitzen zuen tematı. Horren aurrean, Kubarentzat beharrezko praktika bilakatu ziren internazionalismoa eta mundu osoko gizartearen afera humanitarioekiko konpromisoan oinarritutako diplomazia, Kubako Errepublika internazionalki legitimatzeko funtsezko bitartekari gisa, yankiek Iraultza agortzeko egindako ahaleginak deuseztatzeko borroka kulturalean.

Kubarentzat ez zen kontu berria lurrikara, urakan, uholde, epidemia eta sumendien erupzioen tankerako larrialdi egoeretan laguntza bidaltzea. Aljeria independentea laguntzen hasi eta, hortik aurrera, brigada medikoak, behin-behineko ospitaleak, botikak eta osasun langileak, txertoak... mundu osoko txokoetara ailegatu ziren, "lehen mundua" deituriko herrialdeetara barne. Osotara, 600.000 mediku misio kubatar baino gehiagok 165 herrialdetan lan egin dute. 2005ean hondamendi egoeretan eta epidemia larrien aurrean espezializatutako medikuen nazioarteko kontingentea (Henry Reeve Kontingentea) eratu zen, eta martxan egon zen lehenengo 11 urteetan bere brigadak Guatemala, Pakistan, Bolivia, Indonesia, Peru, Belize, Mexiko, Txina, El Salvador, Haiti, Txile, Sierra Leona, Liberia, Guinea, Nepal, Dominika, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa, Fiji eta Ekuadorrera zabaldu ziren. Covidaren urteetan, Kubak bost txerto-hautagai ekoitzi zituen, eta haietarik bi Vietnam, Saint Vincent eta Grenadinak, Mexiko, Nikaragua, Venezuela, Iran eta Bielorrusiako larrialdi egoeretan erabiltzeko onartuak izan ziren. 2020an, Europak eta Mendebaldeak Italiako Iparraldean hilkutxaz betetako orga armatuen prozesioak harriturik ikusten zituzten bitartean, Henry Reeve Kontingenteak 3.700 profesional kubatar baino gehiago 38 herrialdetara bidali zituen, eta horien artean nabarmendu ziren Italia bera eta Andorra.

1959ko Iraultza eta gero, 3.000 medikuk baino gehiagok –yankiek bulkaturik– Kuba saboteatu zuten irlatik alde eginik, eta 16 irakasle baino ez ziren gelditu Medikuntza Eskolan. Horrek ez zuen irla medikuntzan abangoardia bilakatzea saihestu, ikertzaile eta mundu osotik joandako gazteendako formakuntza sanitarioari dagokionez, batez ere. Iraultzaren lehen urteetan bekak eskaini zizkieten karibetar eta vietnamdarrei, eta beranduago gazte afrikarrei, Kuban ikas zezaten eta gero euren sorterrira itzuli eta bertako garapenean lagun zezaten. 1999an Latinoamerikako Medikuntza Eskola (ELAM) sortu zen, zeinean 73 herrialdetako 10.000 profesionaletik gora graduatu diren, batez ere amerikarrak, afrikarrak eta asiarrak.


Kubarentzat ez zen kontu berria lurrikara, urakan, uholde, epidemia eta sumendien erupzioen tankerako larrialdi egoeretan laguntza bidaltzea. Aljeria independentea laguntzen hasi eta, hortik aurrera, brigada medikoak, behin-behineko ospitaleak, botikak eta osasun langileak, txertoak... mundu osoko txokoetara ailegatu ziren, "lehen mundua" deituriko herrialdeetara barne. Osotara, 600.000 mediku misio kubatar baino gehiagok 165 herrialdetan lan egin dute

Artikulu hau ezin da Palestina aipatu gabe amaitu, froga-harri baita Mendebaldeak giza eskubideen alde duen konpromiso faltsua ikusarazteari dagokionez. Kubak ikasle eta osasun langile palestinarren formakuntzan lagundu zuen, unibertsitateko beken, laguntza medikoaren eta kooperazio tekniken bidez, Palestinaren Askapenerako Erakundeari (PAE) eskainitako laguntza diplomatikoaz gain. 1973an Aljerian, dagoeneko, Lerrokatu Gabeko Herrialdeen laugarren konferentziaren testuinguruan, Fidelek Israelekin harreman diplomatikoak hautsi eta PAE aintzatetsi zituen, eta hori egin zuen Amerikako lehen herrialdea bihurtu zen. Era berean, Espainia Mendebaldeko Saharatik erretiratu eta Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren aldarrikapenaren ostean, Saharako herriaren autodeterminazio eskubidearen alde, Kubak Fronte Polisarioaren zilegitasuna onartu zuen, eta formakuntza unibertsitariorako bekak (Medikuntzan bereziki) eman zituen eta ematen ditu egun ere, medikuak, irakasleak eta pertsonal teknikoa bidaltzeaz gainera.

Hitz hauek inprentara bidaltzerako orduan, blokeoaren momenturik zailenean eta yankiak gerrarako prest egonik, ez dakigu zer ekarriko ote dion Kubako Errepublikari etorkizunak, ezta elkartasun internazionala gai izanen ote den ere irla sozialistak egin duen esfortzu eta konpromiso internazionalistaren zorra ordaintzeko. Badakigu, aitzitik, belaunaldiz belaunaldi kubatarrek euren izerdiz eta odolez XX. mendeko bigarren erdiko eta XXI. mendearen hasierako orrialderik heroikoenak idatzi dituztela, mundu osoko herrialdeei emantzipatzen, umiliazioz jositako mendeak gainditzen eta garatzen lagundu baitiete. ●

Argazki bilduma: Tria Giovani

Kuba 1990




Laboratorio
Recepción
de
Muestras


HOSPITALES
CALLE 23
CALIXTO
GARCIA
LA RAMPA
A LA REVOLUCION
Y AL SOCIALISMO
DEBEMOS HOY
TODO LO QUE SOMOS





Argitalpena
2026KO IRAILA
EUSKAL HERRIA

Koordinazioa, erredakzioa eta diseinua
GEDAR LANGILE KAZETA

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER ETA INSTAGRAM
@ARTEKA_GEDAR

Kontaktua
HARREMANAK@GEDAR.EUS

Harpidetza
GEDAR.EUS/HARPIDETZA

Edizioa
ZIRRINTA KOMUNIKAZIO ELKARTEA
AZPEITIA

Lege gordailua
SS-01360-2019

ISSN
2792-4548

Lizentzia

Editoreen oharra: *Artekako* artikuluetan ageri diren ideia, baieztapen eta ondorioak artikulu bakoitzaren egilearenak dira.

arteka